



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA OHARRA

# Pinu-kokoaren izurritea %32 urritu da Bizkaian

Bilbon, 2013ko martxoaren 1ean

Irene Pardok, Nekazaritzako Foru Diputatuak, pinu-koko izurritearen neurriari buruzko datu barriak emon ditu gaur Batzar Nagusietan. Espezie horrek aspalditik kalteten dau pinuaren osasuna. Bilduk eskatuta Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordearen aurrean egin dauen agerpenean, Aldundiko arduradunak azpimarratu dau teknikariek zezeilean egindako prospekzioek gaixotasun horren “eragin txikiagoa” erakusten dabela, %32 gitxiago, hain zuzen be, eta 2012an egindako tratamenduak eragina izan ebala. Pardok aurreratu dauenez, bere sailak espezie hori guztiz desagertu daiten aurrera daroan estrategiagaz jarraituko dau, eta aurton 5.800 konifero hektareatan egingo dau lan.

Diputatua Bizkaiko Ganberara joan da Bilduko batzar taldeak egindako eskaeraren ostean, izurrite horren kontra borrokatzeko irailan “egindako fumigazino masiboak” azaltzeko, fumigazino horreek eragina izen ebelako Busturialdeko ur horniduran. Eskualde horretako Ur Partzuergoak eten behar izan eban banaketa sarera bideratzen dan ur edangarriaren isuraldatzea, fumigazino bat zala-ta. Ia sei hilebete igaro dira hori gertatu zanetik, eta koalizino abertzaleak barrero galdetu deutso Aldundiko Arduradunari, Foru Aldundiak izurriteagaz amaitzeko jarraitzen dituan lanetarako protokolei eta produktu horreek apliketako orduan sartutako hobekuntzei buruz.

Nekazaritzako Foru Diputatuak gogoratu dau fumigazinoak, merkatuan “gehien testatu diran” produktuak aplikatuz egiten dirala, diflubenzuron eta “bacillus thuringiensis” izenekoak, pertsonentzat, animalientzat eta arrainentzat guztiz “arrisku bakoak” diran produktuak. Leku “sentsibleetan” bigarrena erabilten da, ez dalako hain erasokorra. Pestizida horreek apliketako orduan, Foru Aldundia helikopteroak erabilten hasi da, hegazkin txikiak erabili beharrean, aurretik kartografiauta dagozan lekuetan “zehaztasun” handiagoa lortzeko. Hobekuntza horreen artean, departamentuak fumigazinoak egingo ez dan 100 metroko segurtasun eremua ezarten dau, prebentzino moduan, biztanleria gune, ur depositu eta landaketa ekologiko guneen inguruetan. Gainera, Pardok adierazo dauenez, interesauta dagozan taldeei informazioa emoten jake aurretik (Udalei, erlezanei, nekazariei...).

## SUHILTZAILEEN URTEERA GEHIAGO ERLE ETA LIZTORREN ERLADIAK DIRALATA

Nekazaritzako foru arduradunak Bizkaiko Talde Popularrak (PP) egin deutson galderari be erantzun deutso, hain zuzen be, suhiltzaileek azken urteotan Bizkaian erleen/liztorren kopurua handitzearen ondorioz antzemandako “jazoeren igoera” azaltzeko, Foru Aldundiko suhiltzaileek azken urteetan egindako urteeren datuek erakusten dabenez. Irene Pardok adierazo dau larrialdien igoerea aurreko urteetako klimatologiagaz zuzenean erlazonauta dagoala, gure lurraldean erladi gehiago egotea eragin dauelako, eta biztanleek intsektu horreek eragiten dituen arazoei buruzko informazio gehiago daukielako, komunikabideetan liztor asiarrari buruzko informazioa emoten hasi zanetik, batez be. Esan dau, baita be, urteera kopuruak gora egin



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

dauela lehen erlezainek egiten eben lana orain Foru Aldundiko suhiltzaileek egiten dabelako.

Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak bat etorri dira diputatuagaz, horrelako kasuen igoerearen arrazoietan, baina PP taldea ez. Arturo Aldecoaren berbetan, arazoa “konplexuagoa” da. Biztanleak gehiago deitzen dau, gaur egun, orain 20 urte ez egoan aldaketa edo egoera “barria” dagoalako intsektu horreen presentzian. Talde popularreko batzarkideak adierazo dauenez, Bizkaiko gune batzuk, Markinak, besteak beste, ez dabe holango arazorik. Halan da be, diputatuaren eretxiz, erladien presentziaren ondorioz sortutako jazoeren handitzea “ez da intsektu horreen ohituretan aldaketa nabarmena dagoala pentsetako moduko altua edo denboran luzea”.

#### AHO BATEKO ADOSTASUNA ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENETAN

Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak aho batez onartu ditu PPK egindako Arauz Besteko bi Proposamen. Lehenengoan, inausketak “sustatzeko eta aholkatzeko” eskatzen jako Foru Aldundiari, zuhaitzak moztu eta sasitzak kentzearen ordez, Bizkaiko mendietan linea elektrikoek eta beste azpiegitura batzuek eragindako igarobideen garbiketea eta mantentze beharrak egiteko orduan.

Bigarren proposamenean be, PP-k Bizkaiko ganberako talde guztien aldeko eretxia lortu dau, Bizkaiko hainbat aisialdi gunetan “osasun-arazoak artatzeko beharrezkoak leitekezan baliabide teknikoen eta giza baliabideen beharizanen” gainean azterketea eskatzeko Foru Aldundiari. Testuak EAJ-PNV taldearen zuzenketa-eske batzuk jaso ditu, osasun jagoletza hori “ekitaldi kolektibo masiboak egiten diranean” izan daiten.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

### Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales.

# La plaga de la procesionaria del pino se reduce un 32% en Bizkaia

Bilbao, a 1 de marzo de 2013

La Diputada foral de Agricultura, Irene Pardo ha ofrecido, hoy en las Juntas Generales, nuevos datos sobre la extensión de la plaga de la procesionaria, una especie que afecta desde hace décadas a la salud del pino. En su comparecencia en la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente solicitada por el grupo Bildu, la responsable foral ha subrayado que las prospecciones realizadas por los técnicos durante este mes de febrero arrojan el dato de una "menor incidencia" de esta enfermedad, en concreto un 32% menos, así como la eficacia del tratamiento efectuado en 2012. Pardo ha anunciado que su departamento seguirá con la estrategia para erradicar esta especie y tratará 5.800 hectáreas de coníferas durante el presente año.

Su presencia en la Cámara vizcaína se debía a la petición del grupo juntero Bildu por buscar respuestas a las "fumigaciones masivas realizadas" en el mes de septiembre para luchar contra esta plaga, que afectaron al abastecimiento de agua en Busturialdea. El Consorcio de Aguas de esta comarca se vio obligado a detener el trasvase de agua potable a la red de distribución a causa de una fumigación. Trascurridos casi seis meses desde que se produjo el incidente, la coalición abertzale volvía a preguntar a la responsable foral por los protocolos que sigue la Diputación para la realización de estas operaciones de erradicación de la plaga y por las mejoras introducidas en el plan de aplicación de estos productos.

La Diputada foral de Agricultura ha recordado que las fumigaciones se realizan aplicando los productos "más testados" del mercado, concretamente el diflubenzurón y el "bacillus thuringiensis", "inocuos" para personas, animales y peces. En zonas "sensibles", se usa el segundo por ser un producto menos agresivo. En la aplicación masiva de ambos pesticidas, la Diputación ha cambiado las avionetas por los helicópteros para buscar mayor "precisión" en las zonas a tratar previamente cartografiadas. Dentro de estas mejoras, el departamento establece, de forma preventiva, una franja de seguridad de 100 metros sin fumigar en núcleos de población, depósitos de agua y zonas de cultivo ecológico. Además, Pardo ha advertido que previamente se informa a los colectivos interesados (Ayuntamientos, apicultores, agricultores...).

### MÁS SALIDAS DE BOMBEROS POR ENJAMBRES DE ABEJAS Y AVISPAS

La responsable foral de Agricultura ha respondido también a una pregunta del Grupo Popular Vizcaíno (PP) sobre el "crecimiento de las incidencias" detectadas en los últimos años por abejas o avispas en Bizkaia, según los datos de salidas efectuadas por los bomberos forales en los últimos años. Irene Pardo ha señalado que el aumento de las emergencias está directamente relacionado con la climatología de años anteriores que ha producido la proliferación de un



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

mayor número de enjambres en el Territorio, y por el mayor conocimiento de la problemática de estos insectos por parte de la población, especialmente desde que se comenzó a informar en los medios de comunicación de la avispa asiática. Además, la diputada ha advertido que las cifras han crecido porque los bomberos forales han venido a cubrir un servicio que antes hacían los apicultores.

Los grupos junteros Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE) han coincidido con la diputada en que el aumento de estos casos se debe a estas circunstancias, no así el PP. Según Arturo Aldecoa, el problema es “más complejo”. El ciudadano llama más porque hay un cambio “novedoso” en la presencia de estos insectos, que no existía hace 20 años. El apoderado popular ha advertido de que algunas zonas de Bizkaia, como Markina, no se ven afectadas por esta problemática. Sin embargo, para la diputada, el incremento de incidencias generadas por la presencia de enjambres “no es lo suficientemente alto, ni extendido en el tiempo” como para pensar que existe un cambio sustancial en los hábitos de estos insectos.

#### UNANIMIDAD EN LAS PROPOSICIONES NO DE NORMA

La Comisión de Agricultura y Medio Ambiente ha aprobado por unanimidad dos Proposiciones No de Norma del PP. La primera, servirá para instar a la Diputación Foral a “promover y aconsejar” las podas como alternativa a las talas y desbroces en la realización de labores de limpieza y mantenimiento de los pasillos afectados por líneas eléctricas y otras infraestructuras en los montes de Bizkaia.

En su segunda iniciativa, el PP ha encontrado también el apoyo de todos los grupos de la cámara vizcaína a la idea de solicitar a la Diputación Foral la realización de un estudio sobre las “posibles necesidades de medios técnicos y humanos para la atención de problemas sanitarios” en las áreas recreativas de Bizkaia. El texto ha recogido varias enmiendas del PNV para que estos recursos se activen “cuando se celebren eventos de asistencia colectiva masiva”.